

Birjinaren fruituak

HAZIRIK GABE hazten diren fruituen sokari heldu nion lehengo astean, soka luzea. Sexu trukerik gabe sortutako fruituak dira. Paradoxa baten emaitza dira, fruituaren abortua izan behar bailuke ernaldutako loreen ondorioak... Paradoxak paradoxa, hazirik ez duten fruitu antzuak ere badira. Fruitua beti emeak dakarrenez, birjinak eta amak dira. Izen hori eman zaio landareen gertakari horri: “partenokarpia”, grekoz, “birjinaren fruituak”.

Landare batek berez erabaki dezake fruitu antzuak garatzea. Adibidez, bere ugaltze bidean, fruitua jan eta haziak hedatzen animalia bat du lankide nagusi. Urte batean, bata dela edo bestea dela, ezin badu lorerik ernaltu, animalia hori fruituaren sasoian zer janik gabe geratuko da. Bere lankidea ez galtzeko (gosez hilda, emigratuta...), sexurik gabeko fruituak ekar ditzake, ez ugalketarako, baina bai lankidetzan ari denari eusteko.

Gero fruitu antzu gehiago sorrarazten dugu. Landare batzuek zailtasun handiak dituzte sexuen arteko trukea burutu eta

ernaltzeko: tomateak (*Solanum lycopersicum*), zenbait kuiak eta kurkubik... Ernaltu gabeko lore horiek fruituak ekartzera makurtzeko, hormonak edo tankekoak erabiltzen dira.

Errazkeriagatik sortzen ditugu horrelako fruitu batzuk. Espezie dioikoetan adibidez. Horietan sexu arra eta emea landare bereizietan daude, erabat banatuta. Zer egin? Polena soilik emateko leudekeen ale arrak ez jarri eta denak eme, denak emaille; gero geuk egin behar arraren lana. Horietakoak dira kiwia (*Actinidia sp*) eta kakia (*Diospiros kaki*).

Antzuzale gara, baita ere, fruitua jatean haziak traba gogaikarria direlako: begiratu bananari (*Musa sp*), barruan dituen puntutxo beltz horietako bakoitzak haziak izan behar luke; inork ez luke jango antzua jaten duen erraztasunarekin...

Mahaspasatarako mahatsondoak bezala (*Vitis vinifera Sultanina*),



Anana (*Ananas comosus*), hazirik gabeko fruitu ugarietako bat.

anana (*Ananas comosus*), laranja (*Citrus x sinensis*), pikua (*Ficus carica*) eta indipikua (*Opuntia ficus-indica*), luzokerra (*Cucumis sativus*), pomeloa (*Citrus x paradisi*), angurria (*Citrullus lanatus*), ogiaren arbola (*Artocarpus altilis*), alberjina (*Solanum melongena*), udarea (*Pyrus communis*)... Zenbat fruitu antzu! Hazirik ez duen fruiturik eskuratzeko baduzu, gogoratu: ez da sexurik izan tartean, baina baten batek esku hartu du. Hartu eta sartu... ■



DAVID MONNIAUX-CC BY SA

Baobab txongila

Txongil itxura du baobab zuhaitzak, *Adansonia digitata*. 25 metro garai eta hamar metro diametro haz daiteke. Baita 1.000 urte bizi ere. 200 urtetik aurrera hartzen du, batez ere, txongilaren sabel forma hori.

Denboraren poderioz, barrutik hustu egiten da, eta gutxien uste dugun helburu xelebreenerako erabiliko dute: kartzela, bihitegi, ukuilu, etxebizitza, bilkura areto, kaperak... Hustutako zuhaitz horiek lurra eta ura metatzeko ere badarabiltzate. Baten batek 120.000 litro uri euts diezaioke.

Ikusteko aukera onena Madagaskarrera joatea da. Munduan diren zortzi aldaeretatik sei bertakoak dira; beste biak, bat Afrika kontinentekoa eta bestea australiarra. ■



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



- Lorezaintza proiektuak
- Mantentze zerbitzua
- Landare iraunkorren erabilpena eta salmenta:

· Ezagutu eta aukera ezazu Urbina Garden-en.
Legutio ☎ 945 40 34 23



☎ 609 42 45 47 · lorelan@euskalnet.net